ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 20a, ostirala • 134 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

279/2026 Foru Agindua, azaroaren 3koa. "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" gaztelaniazko 55. ipuin-lehiaketako saria ematea

Urtarrilaren 30eko 14/2026 Foru Aginduaren bidez, "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" gaztelaniazko 55. ipuin lehiaketaren deialdia onartu zen.

Sari hori eskuratzeko lanak aurkezteko epea amaituta, ekainaren 19ko 154/2026 Foru Aginduaren bidez izendatutako epaimahaiak lehiaketa hau erabaki du, horretarako egindako aktaren arabera.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Alberto Israel Herrera Tizcareñori, (IFZ: Z2266328M, BP: 10322223) ematea "Ignacio Aldecoa Nazioarteko Ipuin Saria" izeneko gaztelaniazko 55. ipuin lehiaketaren saria, 12.000,00 eurokoa.

Bigarrena. Gastu hori babesten duen aurrekontu-aplikazioa Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 70104. G/332701/47900704 "Literatura-sarien deialdiak" da.

Hirugarrena. Emandako sariaren zenbatekoa, dagokion atxikipena egingo zaiona, ebazpen hau onartu ondoren ordainduko da.

Laugarrena. Saria emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaio sarituari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta ALHAOn argitaratuko da.

Bosgarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu titularrari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan. Bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 3a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

P. A. Kultura jarduneko zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.20 06:25:58 Z